

KOSTUEN EGITURA

Kostuen egitura deritzegu gure produktua sortzerakoan aurkituko ditugun kostu guztiei.

Negozio-eredu batzuek prezio baxuak dituztelako doaz modu egokian aurrera, beste batzuk berriz, kalitate-maila handiagatik. Kasu honetan, gure interesa ez da kostuak minimizatzearena, bezeroari eskaintzeko balioa sortzea baizik, gure produktuaren kalitatea eta marka zainduz.

Gure enpresaren kostu egiturek ezaugarri hauek izango dituzte:

- **Kostu finkoak:** Beti berdin mantentzen diren kostuak dira. Lantegiko alokairua adibidez ez da gure enpresaren errentagarritasunaren araberakoa izango, beti finko mantenduko da. Berdina gertatuko da enpresako langileekin, hauen soldata behin ezarrita ez da aldatuko. Produktua ekoizteko erabilitako makinen mantendua ere kostu finkoen beste adibide bat izango da.
- **Kostu aldakorak:** Gure produktua berotzen den zatiak kargadore bat behar du eta horrek kostu bat du. Kargadore kopurua, kuleroak saltzen diren kopuruaren araberako izango da.
- **Eskala ekonomiak:** Gure produktua oso ezaguna egin ezker, deskontuak ezarri beharko ditugu, bezeroak poztuz eta salmentak handituz.

